

GOBERNU BATZARRA

2015. 03. 27

Alkatea:

Ibai Iriarte San Vicente

Zinegotziak:

**Lore Agirre Zipitria
Hasier de los Rios Soraluze
Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fer-nandez.**

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Kontuhartzailetzako Teknikaria:

Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamabosteko martxoaren hogeita zazpian, goizeko 11:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

1.- Aurreko akta onartzea.

2.-Berdintasun Saila: Diru laguntzaren oinarriak.

3.- Auzoetako diru laguntzen banaketa.

4.-U.T.E. Goroldi-Enearen kontratua Auzo-Konpostaren jarraipenerako urte betez luzatzeko proposamena.

5.-Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Familia ugarien hobaria. F.G.G.en eskaera.

6.-2015 eko Tolosaldea Garatzen Udal ekarpena.

7.-Gune biziak proiektua martxan jartzea. Oinarriak eta kontratua.

8.-Tolosako Udalaren eta Urkizu eta Auzotxiki auzoetako Alurtxiki auzo elkartearen arteko hitzarmenean klausula baten aldaketa txertatzea.

9.-Euskal Herria plazan merkatua jartzeagatik pasatako lidikazioaren ordainketa zatikatzea: G.J.J.en eskaera.

10.-Kotxearen zergak eta isunen ordainketa zatikatzea: G.W.ren eskaera.

11.- Euskaltegiko erreziboaren ordainketa zatikatzea: I.Z.B.ren eskaera.

12.-Baratzaren erreziboaren ordainketa zatikatzea.

13.- Isunen ordainketa zatikatzea: D.B.J.en eskaera.

14.-Tolosaldea Garatzen S.A.: Lehiberri zentroaren obren taa eta zergak.

15.-5/2015 zenbakia duen faktura- zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2015eko martxoaren 18an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.1- Berdintasun Saila: Diru laguntzaren oinarriak.

Oinarri hauen helburua Tolosako udalerrirako diru laguntzen araudia jartzea da. Tolosako berdintasun sailarekin batera lan egiten duten bertako irabazi xederik ez duten elkarteei norgehiagokako erregimen bidez 2015ean emango zaizkien dirulaguntzak zein baldintzatan eskatu eta jaso ahal izango diren zehazten duen araudia da.

Parekidetasun Batzordeko kideak jaso izan dituzte diru laguntzaren oinarriak eta zenbatekoa.

Oinarri hauetan arautzen diren diru laguntzen zenbatekoa, gehienez 5,000,00€ izango da.

Eskaerak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, G.A.O.n argitara ematen den hurrengo egunetik hasita (udaleko erregistroan aurkeztu ahal izango dira, astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 14:00etara). Azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna izango balitz, epea hurrengo lanegunera arte luzatuko litzateke.

Beraz, aiptutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea 2015eko Tolosako Udalerrian berdintasuna bultzatzen duten bertako elkarteei diru laguntza emateko oinarriak, baina baldintzatuta egongo da dirulaguntzen onarpena kreditu aldaketa egin arte.

BIGARRENA.- Onartutako oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udal Taulan argitaratzea.

.....

2.2 Tolosako Udalerrian Gazteen intereseko gaiak garatzeko bertako elkarteei diru laguntzak emateko oinarriak.

Tolosako Udalerrian gazteen intereseko gaiak garatzeko bertako elkarteei diru laguntzak emateko aurkeztu diren oinarriak ikusita, eta kontuan izanik banatutako den diru laguntza kopurua gehienez 8.000€-koa izango dela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Aurkeztutako oinarriak eta diru kopurua onartzea.

BIGARRENA.- Onartutako oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Ediktu Taulan argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Gazteria departamentuari.

3.- Auzoetako diru laguntzen banaketa.-

Berdintsuna, Gazteria, Festak, Partaidetza eta Kultura batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, aurtengo auzoetako jaiek eta jarduerak sortutako gastuei aurre egiteko, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Honako dirulaguntza hauek ematea:

San Esteban auzoa	5.412 €
Berazubi auzoa	4.425 €
Olarrain auzoa	1.357 €
San Blas auzoa	1.575 €
Izaskun auzoa	4.425 €
Larramendi	4.425€
Alde Zaharra	1.556€
Amarotz	25.847€
GUZTIRA	49.087 €

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, eta Berdintasuna, Gazteria, Festak, Partaidetza eta Kultura departamentuari.

4.-U.T.E. Goroldi-Enearen kontratua Auzo-Konpostaren jarraipenerako urte betez luzatzeko proposamena.

Gobernu Batzordeak, 2014ko urtarrilaren 24an, Tolosako udalerrian auzokonpostaren jarraipena egiteko zerbitzuaren esleipen prozedura arautzen duten baldintza Tekniko eta Administratibo partikularrak onartu zituen.

Aipatutako aginte organoak, 2014ko apirilaren 1ean, "U.T.E. GOROLDI – ENEA" enpresari kontratua adjudikatu zion. Kontratu honen baldintzak, 2014ko urtarrilaren 24ean, Gobernu Batzordeak onartutako Baldintza Tekniko eta Administratiboek xedatzen dituenak dira.

Kontratuaren iraupena urte batekoa izan da eta zenbatekoa 19.986,59 eurokoa (BEZ barne).

Baldintza plegu hauen arabera, kontratuaren epea urtebetekoa da, hala ere, kontratu hori urtebetez luzatu ahal izango da, baldin eta alde zuzenetik Gobernu Batzar honek hala erabakitzen badu.

Enpresa elkarte honek emandako zerbitzuaren balorazioa ona da eta Pleguetan eskatutakoa eta lehiaketa publikorako aurkeztutako hobekuntzak ondo bete ditu, eta gaur egun auzokonposta guneak modu egokian funtzionatzen ari dira enpresa elkarte honek burutzen duen mantenu lana eta jarraipenari esker.

Gaur egun Tolosan 204 famili daude (605 pertsona) auzokonposta programan izena emanda, 8 gunetan banaturik. Gune hauen mantenua egiteko (egituratzaileaz hornitu, irauli eta behar denean hustu...) beharrezkoa da zerbitzu honen jarraipena. Bestalde 204 famili horien zalantzak eta iradokizunak jaso eta bideratzeko zerbitzu honek laguntza handia eskaintzen dio udalari.

Hortaz, Gobernu Batzar honek, aipatutakoa kontuan izanik, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Goroldi-Enea eratutako enpresa elkartearen kontratua urte betez luzatzea, 2016ko martxoaren 31rarte eta prezio berdinean.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri enpresa elkarteari, kontuhartzaitzari eta Ingurumen departamentuari ematea.

5.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Familia ugarien hobaria. F.G.G.en eskaera.

Aurtengo urtarrilaren 13an, F. G. G.ek eskatu zuen familia ugariari aplikatzen zaien Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotako hobaria.

Familia unitateko kideak ez dira ondasun higiezin baten jabe. Hobaria familia ugariaren titular izaera duten subjeto pasiboari aplikatzen zaie. Kasu honetan, ondasun higiezinaren jabe ez direnez, ez dira zergaren subjeto pasiboak. Ondorioz, ezin zaie hobaria aplikatu.

2015eko martxoaren 6an, Gobernu Batzarrak, F. G. G. i hobaria ez ematea erabaki zuen.

Martxoaren 18an, berraztertze errekurtsioa aurkeztu du aipatutako erabakiaren aurka. Bertan dio, nahiz eta ez izan etxebizitzaren jabe, alokairu kontratuaren arabera, F. G. G.ek ordaindu behar duela Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren subjeto pasiboa ondasunaren jabea da, baina, kasu honetan, F. G. G. ez da ondasunaren jabe, beraz, ez da zergaren subjeto pasiboa. Ordenantza fiskaletan oinarrituz, hobaria familia ugariaren titular izaera duten subjeto pasiboentzat da. Kasu honetan, ez da aplikagarria hobaria.

Adierazitakoa aintzat hartuta, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENENA.- Errekurtsioa deseuztatzea eta F. G. G. i 2015ko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren osoko kuotaren %50eko hobaria ez ematea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

6.- 2015 eko Tolosaldea Garatzen Udal ekarpena.

Tolosaldea Garatzenek, 2014ko abenduaren 15eko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, 2015eko urterako Tolosako Udalak Tolosaldea Garatzen egin beharreko ekarpena aurkeztu du. Ordainketa bi zatitan egitea erabaki zen.

Ekarpen honen kopuruak honako hauek dira:

Gestio Plana	90.955,00
KIUB (Konts.bulegoa)	15.395,00
GUZTIRA:	106.350,00

Lehenengo ordainketa (2014/03/30ean) 53.175,00 €

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosaldea Garatzen-i 2015eko ekarpena, 106.350 eurokoa, egitea, lehenengo ordainketa, hau da, 53.175 eurokoa, martxoa amaitu baino lehenago eginez.

BIGARRENA.- Erabakiaren berri kontuhartzaitzari eta Tolosaldea Garatzeni ematea.

7.- Gune biziak proiektua martxan jartzea. Oinarriak eta kontratua.

Idea hau jaio da erabiltzen ez diren merkataritzako guneak berreskuratzen jarraitzeko eta Tolosako irudi komertziala du helburu.

Proiektu berri honekin nahi da merkataritzako urbanismoaren erakargarrtasuna eta dinamiazioa hobetu eta horrela lagundu ekonomia eta paisaia biziberritzen.

Proiektu honek ispilutzat du Olot, Kataluniako Gironako probintziako udalerrri bat, zeinak 2013ko irailean Gasteizen egindako Urban Commerce kongresuan honen antzeko proiektu bat aurkeztu zuen. Tolosa ere kongresu horretan egon zen, Tolosa Merkat proiektuekin.

Aintzat hartu behar dugu apaintasunaren gaineko oraingo ordenantza ere, martxan baitago eta programa honetan osagarria eta laguntza handikoa izango baita.

Gune Biziak programaren xede da herriko establezimenduek erabiltzea jarduera komertzialik ez duten lokaletako erakusleihoak, horrela toki gehiago izango dutelarik beren produktuak erakusteko.

Diru laguntzak izango dira erakusleihoak egokitzeko, argi instalazioa eta hobekuntza obra txikiak eginez.

Proiektu honekin honako helburu nagusiak lortu nahi dira:

- 1.-** Ekintzak sustatzea jabeek lokalak eduki ditzaten prest eta itxura onean, saltzeko edo alokatzeko interesa piztuz.
- 2.-** Kaleen, lokalen eta toki hutsen erakargarrtasuna handitzea eta jabeei erraztea beren lokalen erosketa edo alokairua.
- 3.-** Merkataritzako guneak gehitzea, horrela merkatariek beste erakusleiho bat izan dezaten beren negozioarako, beren eragiketa komertzialen inpaktua handituz, eta hondamen-egoeran egon litezkeen eremuei balioa emanez.

4.- Herriaren erdialdea zein Alde Zaharra biziberritzea, sorturik horrela inguru atseginago bat.

5.- Kanean jarraikortasuna lortzea, eremu hutsik gabe, alegia, eta Tolosaren erdialdean aire libreko benetako erdigune bat sortzea.

Tolosako Udala izango da proiektu honen buru, eta berak sortu ditu aurreikusitako diru laguntzak emateko oinarriak. Udalaren eginkizuna izango da erraztea jabeen eta merkatarien arteko akordioen sinadura.

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Programan aurreikusitako diru laguntzak emateko oinarriak onartzea, beti ere 12.000€ko mugarekin aurtengo ekitaldirako. Eskaerak abenduaren 15a baino lehenago aurkeztu behar dira udalean.

BIGARRENA.- Oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Ediktu Taulan argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri kontuhartzaitzari ematea.

8.-Tolosako Udalaren eta Urkizu eta Auzotxiki auzoetako Alurtxiki auzo elkartearen arteko hitzarmenean klausula baten aldaketa txertatzea.

Gobernu Batzordeak, 2014ko urriaren 17an, Tolosako Udala eta Urkizuko Alur Txiki auzo elkartearen arteko hitzarmena sinatzea onartu zuen, Urkizu eta auzotxikiaren garapenerako helburu zerrenda guazatzeko.

Aurten, 2015ean, aurrikusi da, Urkizu Auzoko beharrei erantzunez, ur deposito berria egitea. Auzotarrek orain arte ez dute ura ordaintzen. Hori dela eta, ur deposito berria egiten denean, orain arteko kondizio berdinak mantenduz, hartune honetatik hornitutako urik ez ordaintzea adosten da, eta beste kanalizazio batetik hartuko balitz edo gaurko baldintzak aldatuko balira, aztertu egin beharko litzateke momentu horretan.

Aipatutakoa ikusita, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Goian adierazitako hitzarmenaren lehenengo klausularen 2. puntuaren 2.1 atala aldatzea eta horrela uztea:

2.1 Urkizu Auzoko beharrei erantzunez, ur deposito berria egingo da. Auzotarrek orain arte ez dute ura ordaindu eta ur deposito berritik hornitutako urekin kondizio berdinak mantenduko dira. Beste kanalizazio batetik hartuko balitz edo gaurko baldintzal aldatuko balira, aztertu beharko dira.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Urkizu eta Auzotxikia auzoetako Alurtxiki auzo elkarteari eta kontuhartzaitzari.

9.-Euskal Herria plazan merkatua jartzeagatik pasatako lidikazioaren ordainketa zatikatzea: G.J.J.en eskaera.

G.J.J.ek Euskal Herria plazan merkatua jartzeagatik pasatako likidazioaren ordainketa (1.786,56 euro) zatikatzea eskatu du.

Tolosako Ordenantza Orokorreko, Zergak eta Udal Zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, 400 eta 6.000 euroko zorretan aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gehienezko epea urte 1 dela dio.

9.artikuluko 5. atalak dio: *“Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du.”*

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- G. J. J.ek Euskal Herria plazan merkatua jartzeagatik pasatako likidazioaren ordainketa (1.786,56 euro) 12 hilabeteetan zatikatzea.

BIGARRENA.- Zatikatze honen ondorioz (espedientean azaltzen dira epeak eta kopuruak), berandutze interesak kobratzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

10.- Kotxearen zergak eta isunen ordainketa zatikatzea: G.W.ren eskaera.

2015eko otsailaren 19an, G. W.-k kotxearen zergak eta isunen ordainketa 100€ hilero ordaintzea eskatu du, guztira zor duena 2.873,81 euro dira.

Tolosako Ordenantza Orokorreko, Zergak eta Udal Zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, 6.000 eta 12.000 euroko zorretan aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gehienezko epea urte 1 dela dio eta banku bermea aurkeztu behar duela.

9.artikuluko 5. atalak dio: *“Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du.”*

2010ko ekainaren 10ean, Udal Bilkurak artikulua berri bat onartu zuen. Honen arabera edozein izaeretakoa zerga zorren ordainketa zatikatu edo geroratzeko, kopurua 100.000 baino gehiago ez denean eta ordaintzeko epea gehienez 5 urte denean, bermea ez aurkeztea erabaki daiteke.

Dena den, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- G. W. kotxearen zergak eta isunen ordainketa zatikatzea, 100 euro hilean. Honen ondorioz (espedientean azaltzen dira epeak eta kopuruak), berandutze interesak kobratuko dira, banku bermea aurkeztu gabe.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

11.- Euskaltegiko erreziboaren ordainketa zatikatzea: I.Z.B.ren eskaera.

2015eko otsailaren 26an, I. Z. B.-ek euskaltegiko erreziboaren ordainketa 12 hilabetetan ordaintzea eskatu du, guztira zor duena 581,74 euro dira.

Tolosako Ordenantza Orokorreko, Zergak eta Udal Zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, 6.000 eta 12.000 euroko zorretan aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gehienezko epea urte 1 dela dio eta banku bermea aurkeztu behar duela.

9.artikuluko 5. atalak dio: *“Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du.”*

2010ko ekainaren 10ean, Udal Bilkurak artikulua berri bat onartu zuen. Honen arabera edozein izaeretakoa zerga zorren ordainketa zatikatu edo geroratzeko, kopurua 100.000 baino gehiago ez denean eta ordaintzeko epea gehienez 5 urte denean, bermea ez aurkeztea erabaki daiteke.

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- I. Z. B.-ek euskaltegiko erreziboaren ordainketa zatikatzea, 12 hilabetetan. Honen ondorioz (espedientean azaltzen dira epeak eta kopuruak), berandutze interesak kobratzea, banku bermea aurkeztu gabe.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

12.- Baratzaren erreziboaren ordainketa zatikatzea.

2015eko martxoaren 4ean, L. S. S. G.-k baratzaren erreziboaren ordainketa 20 euro hilero ordaintzea eskatu du, guztira zor duena 138,69 euro dira.

Tolosako Ordenantza Orokorreko, Zergak eta Udal Zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, 6.000 eta 12.000 euroko zorretan aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gehienezko epea urte 1 dela dio eta banku bermea aurkeztu behar duela.

9.artikuluko 5. atalak dio: *“Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du.”*

Dena den, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Onartzea L. S. S. G.-k baratzaren erreziboaren ordainketa 3 zatitan egitea. Ondorioz (espedientean azaltzen dira epeak eta kopuruak), berandutze interesak kobratuko dira, banku bermea aurkeztu gabe.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

13.- Isunen ordainketa zatikatzea: D.B.J.en eskaera.

2015eko otsailaren 27an, D. B. J.-ek isunen ordainketa 12 hilabetetan ordaintzea eskatu du, guztira zor duena 300,52 euro dira.

Tolosako Ordenantza Orokorreko, Zergak eta Udal Zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, 6.000 eta 12.000 euroko zorretan aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gehienezko epea urte 1 dela dio eta banku bermea aurkeztu behar duela.

9.artikuluko 5. atalak dio: *“Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du.”*

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- D. B. J.-ek isunen ordainketa zatikatzea 3 hilabetetan eta ez 12 hilabetetan berak eskatu duen bezala. Honen ondorioz (espedientean azaltzen dira epeak eta kopuruak), berandutze interesak kobratuko dira, banku bermea aurkeztu gabe.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

14.- Tolosaldea Garatzen S.A.: Lehiberri zentroaren obren taa eta zergak.

Tolosaldea Garatzen, S.A., erakundeak Lehiberri Zentroaren eraikuntza sustatu zuen 2010 eta 2013 urte bitartean. Eraikuntza lanen ondorioz, Tolosako udalak ondorengo tasa eta zergak likidatu zizkion:

- Obra handien baimena: 6.695 euro
- Kartografia: 1.039,00 euro
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga: 39.463,97 euro
- Jarduera lizentzia: 1.140,40 euro
- Lehen erabilerako lizentzia: 5.919,60 euro.

Likidazio hauetatik, jarduera lizentzia bakarrik ordaindu zuen. Beraz, gaur egun, 53.117,57 euroko zorra du Tolosaldea Garatzen, S.A., enpresak Tolosako udalarekin.

2014ko apirilaren 8an, Tolosaldea Garatzenen gerenteak Lehiberri Zentroaren sustapena interes orkorreko proiektutzat jo dezala eskatu zion udalari, eta, ondorioz, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga eta Lehen erabilerako lizentzia ordaintzetik salbuestea.

Obra baimenaren, kartografiaren eta lehen erabilerako lizentziaren tasei dagokienez, Ordenantza Fiskalak ez du aurreikusten salbuespen edo hobaririk elkarte hauentzako.

EIOZ-ri dagokionez, Foru Arauak, 5.1. artikuluan, zera dio: "...udalerriek honako hobariak arautu **ahal izango dituzte** beren ordenantza fiskaletan zerga kuotaren gainean: a) 100eko 95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik."

Aipatutakoa kontuan izanik, kasu honetan, EIO Zerga 39.463,97 euro denez, hobaria (%95) 37.490,77 euro izango litzateke.

Tolosako Ordenantza Fiskalek, ordea, ez dute hobaririk aurreikusten obrak interes berezikoak edo udal onurakoak diren kasuentzako. Hau da, hobari hau ez da aplikagarria.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Eskatutako hobariak ez ematea, Tolosako Ordenantza Fiskaletan hobari hauek ez direlako aurreikusten.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Tolosaldea Garatzen.

15.- 5/2015 zenbakia duen faktura- zerrenda.

Kontuhartzaitzak **5/2015** faktura zerrenda aurkeztu du; **491,292,40€**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **5/2015** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 12:30etan.

ALKATEA

IDAZKARIA

